

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Uztaro 57 sei artikuluz osaturik datorkigu. Aspaldian gutxiago atera ditugun «ekonomia sailetik» bi ditugu oraingoan. Arras ongi suertatzen da kooperatibismoaren bi eredu zeharo desberdin zenbaki berean aipatu ahal izatea. Geuregeurea bata, industria-arloan kokatua, eta kubatar sozialismoaren barrenetik, hots, zentralizatutako ekonomiatik nekazaritza-arlor mugatuz salbuespena adierazten duena, bestea. Hizkuntzalaritza tradizionalarekin apurtuz, hizkuntza estandarren eta dialektoaren arteko harremanak aztertzeraz datorkigu hirugarrena. Laugarrenak publizitatea Zuzenbidean jasotzen ari den tratamendua dakarkigu. Bosgarrenak sexologian murgiltzen gaitu arazo sexualen orduan diagnostikorako elkarrizketaren eredua gomendatuz eta deskribatuz. Seigarrenak unibertsitate-ikasketetan ECTS^k (europar kreditu-sistemaren aldaketa) dakartzan ondorioak aipatu eta irakasleriaren eginkizunak zehazten ditu. Hau adierazita, igaro gaitezen artikulua hauek banan-banan hurbiletik ikustera.

«Lekualdatzeak eta enplegu kooperatiboa Fagor Elektrotresnak E. Koop.-ren ataka» artikulua lekualdatze produktiboen fenomeno globalizazioaren testuinguruan aztertuz mundu kooperatiboak bere identitatea gordez aurre egiteko aukeran dituen estrategiak eztabaidatzen datorkigu. Arazoa da soldata-ezberdintasunak eta mundu-ekonomiako herrialde ezberdinetako lan-baldintzak enpresa-metaketa-rako oinarri gisa erabiltzeko joera bizkortzen ari dela. Guzak horrela, lan-eskubideen alorrean berealdiko atzerakada baterantz bidera ditzake herrialde ezberdinak. Izan ere, lekualdatzeak jatorriko lurraldean desenplegua sortzen duten jarduera produktiboen nazioarteko desplazamenduak baitira. Hala ere, adituen artean eztabaida dago lekualdatzeen esanahiaz. Batzuen aburuz, lekualdatzeak herrialde batean enplegua sortzeko beste batean enplegua deuseztatzen duten aldibereko prozesuak lirateke; beste batzuentzat, aldiz, helburua pizkunde garrantzitsua bizi duten merkatu berrietan sukurtsal produktiboak ezartzea litzateke. Lekualdatzeen garrantziari buruz ere askotariko iritziak daude. Zenbait daturen arabera 2002. eta 2003. urteetan 104 enpresa lekualdatu dira 15 kideen Europan. Baina, horren adirazi nahia neurtuz baloratzeko esan dezagun, 1990. eta 1995. urteen bitartean 174 lekualdatze atzeman zirela Europar Batasunean. Batzuen aburuz, lekualdatze-prozesu hau Atzerriko Inbertsio Zuzenarekin batean hazi da; beste batzuentzat, aldiz, lekualdatzeak ez dira oraindik fenomeno estatistiko esanguratsuak. Bestalde, lekualdatzeena ez da hain fenomeno berria, XX. mendean, 200 talde transnazional inguruk gidatzen zuten merkatua. 70eko hamarkadan ezarritako Lanaren Nazioarteko Zatiketa berriak eman dio fenomeno honi izaera globala. Erdigunean balio erantsi altuko produktuen ekoizpenerako eskulan gaitua kokatzen duenean, aldi berean, periferian kostu baxuko eta kualifikazio apalagoko ekoizpenak ezartzen ditu. Hasieran Hirugarren Munduko herrialdeetara desplazatu ziren; Asiako lau dragoien hazkunde ikarragarria 80ko hamarkadan gertatu zen. 90eko hamarkadan bultzaturiko liberazio ekonomikoaren prozesuak beste merkatu batzuetarako sarbidea erraztu du. Ondorioak garbi ikus ditzakegu. 2000. urtean kapital-irteeren % 91 herrialde garatuetan kontzentratzen zen, eta orobat,

beren jomugen % 79 ere bertara zihoan. Baina gauzak ez dira sinpleak. Anitzetan herrialde pobreetan balio erantsi altuko industria eta zerbitzuak ezartzeko joera atzematen baita. Une honetan Txinak garapen-bidean dauden herrialdeen AIZren % 75 jasotzen du. Bertan 30 milioi langilek, 2.000 zona frankotan integraturik, zerga-eta finantza-erregimen berezien ganean eta ingurumenari dagozkion zein gizarte-alorretako araudien gabezia osoaren azpian lanean dihardute. 2004an Ekialdeko Europako beste 10 herrialde European barneratzeak erronka berriak dakartza berekin. Herrialde horietan kobratzen diren soldatak egun Alemanian kobratzen direnak baino 10 bider apalagoak baitira. Ondorioz, Europa mailako enpleguaren babeserako politika koordinatuen beharra inoiz baino beharrezkoagoa da. Lekualdatzearen kontrajoerak ere agertzen hasiak dira. Arrazoa da giza lanen ehuneko handi bat oraino lekualdagaitza izatea. Gainera, lekualdatze gehienek kostuak murrizteko estrategia bati erantzuten diote, eta horiek jasanezin bilakatzen dira. Lekualdatze-faktoreak desberdinak izanik ere, soldata/produktibitate harremana da lekualdatzeen funtsezko aldagaia. Horretan, berriz, prozesu produktiboen eta produktuen teknologia-maila barneratu behar da. Kontrako ikuspuntutik lurralde-faktoreak aipatu behar dira. Enpresaren jabego eta historiarekin zerikusia duten faktoreak. Horrela, bada, kooperatibetako bazkide/langileen artean dagoen gizarte-kapitalaren jabegoa enpresaren sustraitzeari begira giltzarri nagusietako bat da. Iparraldeko ekonomien erronka "nitxo", "txoko" edo "habia" ekonomiko, sozial, politiko, kultural propioak eratzean datza, hots, parte-hartzean, demokrazian eta elkartasunean oinarrituak eta ekoizitako produktuen kalitatea bermatuko dutenak komunitatearen irudimena askatuz. Kooperatiba industrialek merkatu kontzentratu eta nazioartekoetan lehiatzeko duten problematika ilustratzeko Fagor Elektrotresnak adibide egokia dugu. Fagor-en nazioarteko hedakuntzaren problematika landuko dugu. Fagor ahalegindu da bere lehiakideen lorratzean ibiltzen. 90eko hamarkadan kanpo-hazkundeak bultzaturik nazioarteko mailara egin zuen jauzi. Interesgarria izango litzateke ea zertan bereizten den Fagor bere sektoreko gainerako multinazionalatik. Hasiera batean, diferentzia esanguratsuen jabetzaren moldean legoke. Aukera estrategikoa dago jokoan: erregimen kooperatiboari eusteak Fagor behartzen baitu oreka bat bilatzera globalizazioak dakartzan eskakizunen eta printzipio kooperatiboen artean, beharrezko errentagarritasunaren eta enpleguaren mantentzearen artean. Fagor-en gobernu-organoen eraketa bere enpresa-jarduera baldinatzatzen duen funtsezko alderdia da. Horrela, Elco-Brandt-en erosketa orduan bazkideen lanpostuak ez murrizteko eskatu zen, balizko galerek ahalik eta efektu ahulena izan zezatela langileen errentetan, alegia. Era berean, Kontseilu Errektoreak aldizkako informazioa erraz zezala eta eragiketan parte hartzen zuten exekutiboek konpromiso etiko sendo bat eska ziezaietela erregutzen zen, gauzak ongi joan zitezela. Lehiakortasunaren eskakizunei men egin eta Fagor multinazional bilakatzeko bidean jar zezakeen berregituraketa sakon baten aldeko hautua egin zen. Baina arras litekeena da Fagor-ek bertako enplegu kooperatiboaren gaina joa izatea jadanik, eta beraz, kanpoan enplegu ez-kooperatiboa sortzen joatea bertakoa murrizten duen bitartean. Fagor-en erronka berrikuntza- eta garapen-prozesuen emaitza diren presatuntza eta teknologia berrien erabilerrari loturiko alderdi lehiakorak indartzean datza. Fagor-en jarduera berrien apustu nagusia domotika da. Filialen erosketa-eragiketen ondorioz Fagor taldearen nortasun kooperatiboa sakonki zauritua izan dela baieztatu daiteke. Bere nortasun kooperatibotik eratorri behar litzateke

kudeaketan zein jabetzan parte hartzea eta inguruarekiko konpromisoa oinarri lukeen alternatiba baten egikaritzea. Horrek adierazten duenez, garapen-ereduen inguruko eztabaida behar-beharrezkoa da.

«Kooperatibismo usufrutuario kubatarrean oinarritutako hainbat iradokizun» artikuluan kubatar eredu zehatz baten gakoak aipatzen dira. Usufrutuak eta estatuaren jabetza diren Ekoizpen Kooperatiboaren Funtsezko Unitateek (EKFU) Iraultzaren lehenbiziko garaietara itzulera dagoela adierazten digute. Aurrez beste bi kooperatiba-eredu existituak ziren. Hala ere, GEak (Granja Estatalak) dira EKFUen enbrioia. Lur estatalen kooperatibazioaren bidez lur produktiboen % 60 baino gehiago kooperatiben esku gelditu zen. EKFUak sistema kooperatibo sozialista baten barrenean sortzen dira: behar nazionalak lehendabizi eta geroago kooperatibaren helburu partikularrak izango dira xedeak. Nekazariak soldatapeko langileak izatek jabe bazkideak izatera pasatu behar dira. Lurrarekiko atxikimenduan baino gehiago, jabetza komunitarioaren sentimendua ustiapenetik ateratzen diren produktueta oinarritzen da geheinbat. Herrialde kapitalistetan lur komunalen jabego komunitarioa finkatua dago. Baina EKFUen kasuan jabegoa lokala izan ordez estatala da. Jabetza komunitarioak administrazioaren esku-hartze zuzena duenean, lortutako etekinen artean soilik erdia banatzen da, beste guztia inbertsio berrietara zuzentzen delarik. Gisa horretan, lehenik sozialismoaren iraupena bermatu nahi da, eta ondoren, ezaugarri autogestionario batzuekin, interes inboluzionisten aurrean irla babestea da helburua. Gizabanakoa «eroso sentitzea» bai, baina aldi berean gizartea osatzen duten gainerako gizabanakoengan «erabilgarri sentitzea» lortu behar da. Balio autogestionario kooperatibistak garatuz sozialismoaren iraupena lortu nahi da. Esku-hartze administrazioa ezbaian jar ez daitekeenez «zentralizatutako autogestioaren» aurrean gaudela aitortzea egoki da. Kapitalismoaren garapenak dakarren lur-espekulazioaren aitzinean, kontrajarrita, jabetza komunitarioa eta EKFUek aplikatutako autogestio zentralizatuaren ereduak azaltzen dira. Horrela, usufruktuan dauden lurak ezin dituzte inoiz saldu bazkide kooperatibistek. Bestalde, Kubako EKFUetan nekazari-sindikatuak mantentzen da. Sindikatuaren lehenbiziko egitekoa fiskalizazio politikoan kokatuko litzateke, adibidez, formazio kooperatiboa hurbiletik jarraituz. Ekoizlearen emulaziora bakarrik mugatzeak sozialismoaren izaera solidario eta berbanatzailea kolokan jarriko luke epe labur batean. EKFUetan gizarte-zentroak, medikuak, ekimen kulturalak eta abar aurkitzen ditugu baina etengabeko formazioa ez dagoenez antolatuta, sindikatuen bidez bermatzen da. Euskal Herriko ekonomia sozialean, esku-hartze sindikalari atek itxi izan zaizkio. Gaur egun Kuban pizgarri moralen eta ekonomikoen arteko eztabaida zabala ematen ari da. EKFUetan pizgarri moralei ematen diete lehentasuna ekonomikoen aitzinean. Integrazio nazionalean oinarrituz lanaren esparruan pizgarri moralen sistemak pisu handia du. Euskal ekonomia sozialean, aldiz, pizgarri ekonomikoa da langile bazkideen mentalitatean funtsezko ideia. Ondorioak ateratzeko orduan azpimarratzen da herri honetako antolamendu sozioekonomiko zehatzek, administrazio zentralizatua kontuan izanik, usufruktuzko jabetza komunitarioa garatu beharko luketela. Autogestio zentralizatuaren metodoak espekulazioa gelditzeko benetako aukera eskaintzen du. Eta eredu hori biribiltzeko behar beharrezkoa litzateke sindikatuaren presentzia. Proiektu nazionala eta internazionala lotzeko orduan bereziki.

«Bokal-elkarketak beratarren hizkeran» artikuluan bokalen arteko elkarketetan fonologiari dagokionez zer gertatzen den ezagutzera eman nahi da. Hizkuntzak etengabe aldatuz doaz, eta hizkuntzen estandarizazio-prozesuan, estandarraren eta euskalkien arteko distantzia txikituz doalarik, dialektoen arteko forma desberdinak ere gutxituz doaz. Artikulu honetan, aldaera estandarraren eta euskalkiaren arteko konbergentzia aztertzen da, eta ez dibergentzia. Ezaugarri metodologiko batzuk aipatzen dira, grabaketen bidez egina izan dela, galdera-sorta itxia izan dela, eta gaztelaniazko zenbait esaldi euskaratzeko eskatu izan zaiela, hain zuzen. Berako euskaran bokal irekien ixtea gizabanako helduek bezala gazteek egiten jarraitzen dutenean, aldiz, bokal itxiaren eta irekiaren artean epentesia tartekatzeko joera gazteen artean galduz doan ezaugarria dela da hipotesia. Lau adin multzotan jendea sailkatu da. Bereizi egin dira ere kaletarrak eta baserritarrak. Jakina baita baserritarrak direla euskalkia gehien mantentzen dutenak. Ikerketa ikuspuntu sinkroniko batetik egina izan da. **Ea** eta **ia** bokal-elkarteak nola erabiltzen diren jakiteko frogak jaso dira. Jasotakoa irakurtzean ikusten da haurrek lehenengo bokala itxi gabeko aldaera egiten dutela gehienetan. Gazteek bokalak bere horretan mantentzen dituzte. Gainera, inesiboko hiru adibideetan, mugatzai-learen erabateko asimilazioa egitea da aukera nagusia. Helduek irekiaren ixtea lau hitz berdinetan egiten dute, eta beste hitz batzuetan ez dute aldaketarik egiten. Inesiboaren erabileran joera ezberdinak ikusten dira. Adinekoek, gehienetan, lehenengo bokal irekia ixten dute. Inesiboari dagokionez, lehenengo bokalaren disimilazioa gehienetan egiten da. Batez beste, adin guztietako lekukoen datuak orokorki hartuz gero, bi joera nagusi aurki ditzakegu: zenbait kasutan, hiztunen gehiengoak bokalak mantetzen ditu, itxierarik ez eginez, alegia, eta beste batzuetan, lehenengo bokala itxiz disimi-latzea da nagusi. Bigarren taula bat ere aurkezten da **ia** bokal-elkarketetan zer gertatzen den ikertzeko. Ondorioek hau erakusten digute: haurretan **y** epentetikorik ez sartzea dela nagusi. Gazteen artean ere joera bera ageri da. Helduen artean behin bakarrik bokal epentetikoak erabili izan da. Adinekoen artean, aldiz, emaitzak bestelakoak izan dira. Lau multzeotako hiztunen datuak orokorki hartuta, kasu guztietan erdiak baino gehiagok epentetikoak tartekatu gabe ahos-katzen dituzte **ia** edo **io** elkarketak dituzten hitzak. Artikulurako bildu diren datu guztiak batera erabiliz gero, disimilazioa, epentesia eta asimilazioa neurtzen dira. Bi bokal irekien elkarketak dituzten hitzak disimilatzeko joerari dagokionez, hiztunak zenbat eta helduagoak izan, orduan eta joera handiagoa dute horietarik lehenengoa ixteko; aldiz, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta joera handiagoa dute ez ixteko. Epentesiari dagokionez, 61 urtetik gorakoen artean baino ez da nagusi epentesia ahoskatzea. Asimilazioaren kasuan, berriz, **ia** bokal-elkarketa oinarrian duten hitzetan, gazteak adinekoekin pareka genitzake. Bokalen arteko ezaugarri horiek, beraz, galera-bidean daudela esan daiteke. Adinekoak dira bertako hizkuntzari gehien eusten diotenak. Belaunaldi berriengan euskara estandarizatuak, batuak, eragin nabarmena izan baitu. Artikuluan esandakoak ondorioztatzeko, Berako hizkeraren bi ezaugarriak galduz doazela esan behar da, eta orobat, galera hauek aldaera estandarraren eraginaren ondorioztat eman behar direla. Bestalde, estandarraren eta euskalkiaren arteko aldaera berri bat nagusituz doa: aldaera berri horren gramatika eta fonologia dialekto tradizionalenak baino erregularragoak eta sinpleagoak izateko joera baitago.

«Elkarrizketa sexologikoa: ezaugarriak, diagnostikorako eredia eta deribaziorako prozedura» artikulua arazo sexualen diagnostikorako elkarrizketaren proposamena argudiatzera dator. Osasun sexuala, ezaugarri biologikoak nahiz psikosozialak barne hartzen dituen ikuspuntu integrala dela gogoarazten zaigu horretarako. Ebaluazio-tresnak honakoak dira: elkarrizketak, protokoloak, autoinformeak, autoerregistroak, behaketak, eta abar. Baina, sexu-arazoaren identifikazioa baimenduko digun eredu bat izatea beharrezkotzat jotzen da. Izan ere, elkarrizketa baita praktika klinikoan onarpen handiena duen ebaluazio-tresna. Testak kuantifika daitekeen informazioa jasotzen duten metodo estandarizatuak izanik konparaziotik ulertzen dira. Aldiz, elkarrizketaren bidez konfiantzazko giroa garatzea lortzen ahal dugu. Behaketarako gaitasuna ere eskaintzen du elkarrizketak. Pertsona ezinduek edo zailtasunak dituztenak ebaluatzeko ahalbidea ere badu. Azkenik malgutasuna du. Lehen elkarrizketak harreman terapeutikoa ezartzearen oinarritzko funtzioa betetzen du. Bezeroaren barne-herstura maila jaisteko balio behar du. Bezeroak arazo konpongarri baten aurrean dagoela onartu behar du. Horretarako terapeutak arreta handiz jokatu behar du alderdi positiboak jaso eta azpimarratuz. Elkarrizketan terapeuta neutralitatea gorde behar da. Ondoren, Azanza Protokolo Sexuala (APS) eredutzat aurkezten da. Bere zatikiak honakoak dira: agurra eta kontsultaren zergatia; datu pertsonalen, deribazio-datuen eta aurretiko konpontze-saiakeren bilketa. Arazoa zein den jakitea bezain garrantzitsua da bakoitzarentzat duen esanahia ezagutzea. Ondoren, bezeroaren historia mendikoa jasotzen da. Bikotean bizi bada, bikote-harremanen historia. Tratamenduarekin lortu nahi diren aldaketen zehaztapena. Terapeutak motibazioa jaso duten azken galdera klabeak egingo ditu. Azkenik, informazioaren itzulera eta arazoaren planteamenduaren aurkezpena. Hasierako diagnostiko honek funtzio bikoitza betetzen du: alde batetik, kliniko ez-espezializatuari deribazio arin bat egiteko aukera ematen dio, eta bestetik, lehenengo erantzun bat ematen zaio bezeroari bere eskaera edo beharren inguruan. Ondoren, pazienteak berak arazoari buruz egiten dituen atribuzioak aztertzen dira. Arazoaren inguruko zirkunstantzietan oinarrituko gara jarraian. Berehala, bezeroak edo bere familiako kideren batek gaixotasun garrantzizkorik duen edo ez arakatuko da. Galdera osagarri batzuk aurkeztuko dira erektzio-disfuntziorako, aneikuluziorako, eta eiakulazio berankorrerako. Ondorio orrorokorretara igaroz esan, elkarrizketa dela gehien erabiltzen den eta onartuen dagoen ebaluazio-teknika, beste ebaluazio tresnekin konparatuz abantaila garrantzitsuak baititu. Zertan datzan agertzeraz igaroz honela laburbiltzen ahal dugu. Bezeroaren eskaera modu egokian jaso behar da. Terapeutak bere pertsona arteko trebetasunak eta gaitasun taktikoak jarri beharko ditu martxan harreman terapeutiko egokia lortzeko. Klinikoaren jarrera lehen elkarrizketan arras garrantzitsua da. Klinikoak tratatu beharreko arazoan eragina izan dezaketen edozein faktorearen aurrean arreta jarriz adi jokatu beharko du.

«Euskaldunak eta Goi-mailako Hezkuntza Esparru Unibertsitario Europarra. ECTS kreditu-sistamarako egokitzapena; irakasleriaren eginkizunak», artikulua gaurdaino gure unibertsitateetan nagusi den sistema eta Europatik datorkigun sistema berria konparatzera dator. Horretarako, lehenik, gradu aurrekoa eta gradu ostekoa bereizten dira. ECTS kreditu-sistema berriaren helburua unibertsitateen mugikortasuna lortzea dela gogorarazten zaigu. Unibertsitateen autonomia eta haien arteko lehiakortasuna areagotuko dira. Komunitate unibertsitario euskaldu-

nari berari dagokio erabakitzea aldaketa horien aurrean zein jarrera hartu nahi duen. Unibertsitateko ikasleak dira aldaketa gehien nozituako dutenak. Neurri batean, ikasleriarengan gauzatuko baitira aldaketak. Orain arteko gradu osteko titulu gehiago izango dira baina unibertsitate desberdinetan sakabanaturik. Orain ezagutzen dugun unibertsitate jeneralista krisian dago. Azterketa honetarako gizarte-zientzietako kasua bakarrik kontuan hartzen da. Egungo kreditu-sisteman batez beste 800 ordu behar ditu ikasleak kurtsoa ateratzeko. ECTS kreditu-sisteman 1.600 ordu egin behar izango ditu kurtsoa gainditzeko. Gaurko irakasle-ikertzaile batek, berriz, gutxi gorabehera 225 eskola-ordu teoriko eta praktiko ematen ditu. Beste 75 ordu ikasleek euren aldetik lan egin dezaten. ECTS kreditu-sistemak irakasleen orduen banaketaren aldaketa ekarriko du. Ratio hori askoz handiagoa izango da. Irakasleriaren berrantolaketa dakar, noski. Euskal komunitate unibertsitarioak arreta handiz jarraitu beharko du aldaketa prozesu hori orain artean euskararen normalizazioan lortutako aurrerapenak alferrik gal ez daitezten. Euskaraz irakasteko gaitasuna gal dezakegu titulu eta ikasketen berrantolaketaren ondorioz. Gradu osteko tituluetan gure tokia ahula baita. Euskal Herriaren hiru eremu nagusietan berezko erakunderik gabe aurkitzean ez baitauekagu inolako eskuduntzarik prozesu honetan. Euskal Herriari hobeto letorkioke egitura bereko titulazioak izatea Iparraldean eta Hegoaldean eredu bateragarriak izateko, baina, arras kontrako egoera izan dezakegu. Euskaldun komunitate unibertsitario ez denez iristen herena izatera Euskal Herriko unibertsitateetan gure aurka izango dugu proportzionalitatea. Gainera, unibertsitatean, irakaskuntzaz harago, ikerkuntza, berrikuntza eta ezagutzaren hedapena egiten dugu. Horietarik datozen arazoei aurre egiteko bikaina litzateke berezko antolamendurik bageneuka, baina ez da gure kasua.

«Publizitate Zuzenbidearen egungo egoera» artikulua 1978ko Espainiako Konstituzioan aurkitzen dugun publizitate-jardueraren oinarria eta babes juridikoa komentatzera dator. Bereziki, badu lege bat publizitatea gai apartekotzat duena, hots, 1988ko azaroaren 11ko Publizitate Lege Orokorra deitua (aurrerantzean, PLO deituko duguna, hain zuzen). PLOk legez kanpoko publizitate kasu guztiak hartu nahi ditu bere baitan: a) pertsonaren duintasunari erasotzen diona; b) publizitate engainagarria; c) publizitate desleiala; d) publizitate sublimala; e) zerbitzu, jarduera, ondasun edo produktu zehatz batzuen publizitatea arautzen duen sektore-araudian xedatutakoa hausten duen publizitatea. PLOk azpimarragarriak diren erreformak jasan ditu. 39/2002ko urriak 28ko Legeak ekarri zituen aldaketak daude, noski. Horrela, 39/2002ko Legea, etete- eta zuzentze-akzioak erabiltzeko oinarri prozesal bezala ezarrita zegoen iragarleari aurrez egin beharreko errekerimendua egitearen premia mantentzearen alde azaltzen da. Errekerimenduari erantzuna emateko iragarleari eskaintzen zitzaion epea, luzatu egiten du. Bestalde, Lege beraren 29. artikuluan, publizitate ez-zilegiari aurre egiteko kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektiboaren babeserako akzio kolektiboak erregulatzeko dituzten Ustekabea Lege beraren 26. eta 27. artikuluek geroagoko 29. artikuluekin alderatzen dator. 1/2004ko Lege Organikoaren bitartez berria den erreforma baten objektu ere izan da. 3. artikuluen bidez letra zaharrari idazkera berri bat ematen baitio. Emakumearen duintasuna erasotzeko arriskueta sakontzen da. Ez da, hala ere, emakumearen gorputza erabiltzen duen publizitate oro kondenatzen ari. Ez da ari zeregin zehatz batzuk egiten dagoen emakumearen

aurkezpenaz, portaera estereotipatu gisa agertzen diren zereginen aurkezpenez baizik. Genero-indarkeria sortzeko lagungarri den gaia lotu nahi da. Beste atal berri bat ere badago: PLOren 25. artikuluari orain atal berri bat erantsi zaio. Posible izango da aktiboki legitimaturik dauden subjektuen artean hiru kategoria ezberdintzea: bata, interesen defentsa orokorrean legitimatuta aurkezten direnen multzoa; bigarrena, ez-zilegitzat jotzen den publiziate-modalitate zehatz baten aurrean, bereziki legitimaturik agertzen direnen multzoa; eta hirugarrena, kaltetuta suertatzen diren pertsonena. Tabakoren eta antzeko produktuen publizitate eta babesletzari buruz datozen aldaketak ere nabarmentzekoak dira. PLOren 8.5. artikuluz gero, autonomia-erkidegoek beren legeak moldatu izan dituzte. Baita Europar Batasunak ere. Baina, Europar Batasunaren 2003ko maiatzaren 26ko Zuzentarauak Espainiako lurraldeak aldaketak egitera behartu ditu. Lege Proiektua 2005ko maitzaren 4an onartu zen Diputatuen Kongresoan. Oro har, europar Zuzentarauak tabakoaren barne-merkataritza erraztea izan zuen helburu. Direktibak tabakoaren publizitatea, bere produktuen babesletza eta doako banaketa debekatu egiten ditu telebista ez den hedabide guztietan. Espainiari dagokionez 2006an indarrean jarri den proiektu berriak, europar Direktiba baino harago joanez, Zuzenbide Industrialari dagozkion hainbat arazo ere jasotzen ditu. Legearen 16. artikuluan publizitateagatik kaltetua izanez gero, etete-akzioak jartzeko ahalmena duten subjektuak aipatzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko 18/1998ko Legeak drogen mendekotasunaren prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea erregulatzen ditu. Nafarroako Foru Erkidegoko 6/2003ko Foru Legea, berriz, tabakoaren kontsumoaren prebentzioa, arnasteko airearen babesa eta tabakoarekiko osasuna bultzatzeko helburuaz egina da. Bai bata zein bestea Estatuko Legeria baino hertsiagoak dira. Batez besteko balorazio orduan hau adierazten da: 2006ko Tabakoaren Legea tabakoaren publizitatea ia erabat debekatzera dator, baina kontrol-neurriak ezartzen arazoak izan ditzake. Izan ere, lurralde bakoitzean tolerantzia desberdina baitago.

